

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Buztintxuriko eta Villafrancako el Castellar ikastetxeetako ordezkariak “Global Schools” jardunaldian parte hartu dute Zaragozan

*Bi eskoletako arduradunek ikasgeletan Garapenerako Hezkuntza eta Gizarte Globalerako irizpideak ezartzeko landutako esperientziak aurkeztu dituzte*

Osteguna, 2018.eko maiatzak 24

Buztintxuriko Ikastetxe Publikoa eta Villafrancako El Castellar ikastetxeoko ordezkariak Zaragozako Foru Aldundiak antolatutako Global Schools jardunaldian izan dira Aragoiko hiriburuan. Bi eskoletako irakasleek ikasgeletan Garapenerako eta Gizarte Globalerako irizpideak ezartzeko garatutako esperientziak ezagutarazi dituzte.

“Garapenerako Hezkuntza eta Gizarte Globalerako irizpideak Lehen Hezkuntzan nola ezarri?” jardunaldian, gizarte justu eta parekidea lortzeko helburuarekin, ikasleen zein hezkuntza komunitatearen parte hartzea nola garatu aztertu dute. Ekimen hau Europar Batasuneko “Global Schools” proiektuaren baitan gauzatu da, non hamar herrialdeetako ikastetxeek parte hartzen duten.

Buztintxuri Ikastetxe Publikoko, M<sup>a</sup> Ines Garrido eta Ana Zaratiegik, “Gauzen balioa bergaratzuz. Denboraren balioa” hitzaldia aurkeztu dute ikastetxe bakoitzak aipatutako garapenerako hezkuntza txertatzeko ezagutzera emateko egindako mahai inguruan. Tarte berean, El Castellar de Villafrancako, Beatriz Aznarez eta Elena Peláez irakasleek “Pertsonen artearen bitartez kultura sortzen dugu: interkulturalizatu” lana aurkeztu dute. Nafarroako ikastetxeekin batera, Valladolid zein Portugalgo ikastetxeek ere beraien esperientzien berri helarazi dute.

Nafarroako eskoletako ordezkariekin batera Zaragozan izan dira,



Villafrancako El Castellar ikastetxeeko irakasleak jardunaldian.

Nafarroako Eskola Solidarioen Sarea aurkeztuz, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuko Hezkuntza programen negoziatuko zuzendari, Ana Turumbay eta Nafarroako Gobernuz Kanpoko Erakundeen koordinazioko hezkuntza eta sentsibilizazio teknikari, Marian Pascual.

Jardunaldi honek erakunde, akademi zein gobernuz kanpoko erakundeen arteko elkarlana bultzatzea izan du xede, guztien artean Garapenerako Hezkuntza eta Gizarte Globalerako irizpideak lantzeko tresnak eta errekursoak ezagutzera eman, zein eztabaidarako tartea zabalduz, azken finean lehen hezkuntzako ikasleekin gizarte justu eta parekide bat lortzeko bidean ekimenak gauzatu daitezzen.